

## ANALISIA

ZIZTU BIZIAN

■ Xabier Usabiaga

## Azken egunaren baitan

Lehen begiratuan, borondatea islatzen du Euskal Herriko Itzuliko ibilbidearen ispiluak. Eta, azaletik erreparatuz, ha- maika urteko agorraldia eteteko desira usaintzen zaio, bestalde, euskal txirrin- dulariek orain arteko karrera eta entre- namenduetan isuritako izerdiari.

Gaur egungo eskaerari erantzun nahi dion ibilbidea atondu du antolakuntzak, eta borondatea ukaezina da. Etapak de- zente laburtu dira, eta azken kilometro- etan ziklisten ezinegona, eta horrenbes- tez eraso erauntsia, eragin nahi duten mendateen miaketan gogotik jardun du norbaitek. Hala ere, azken egunaren baitan dagoela esango nuke, aurten ere, Euskal Herriko Itzulia.

Tropela haustea gero eta zailagoa da profesionaletan. Garai batean eskala- tzaileen esparru ziren mendateek kili- mak baino ez dizkiete eragiten egun, eta esprinterrik petoena ere aurrean heltzeko gai da, hartarako azken men- datetik helmugara dozena pasatxo kilo- metro baditu. Horregatik, nekez nabar- menduko da inor azken erlojupekoa



EGUNKARIA  
**HAUTAGAI NAGUSIA.** Danilo Du Luca da itzulia irabazteko faboritoetakoa.

baino lehen, eta horregatik iruditzen zait, erlojupeko proba eta mendiaren arteko oreka nahi bada, antolakuntzak garai bateko formulara itzuli beharko lukeela, hau da, mendian amaitzen den etapa bat kokatzera itzuliaren erdian. Baina hori beste eztabaida bat da, eta beste egun baterako utziko dugu.

Azken etapan orotarik da, mendia eta erlojupekoa. Dagoen mendia gogorra da, eta, horrenbestez, erabakigarria izan daiteke, baina zerbait erabakitze- kotan ausardia eskatzen du derrigorre- an. Izan ere, mendaterik gogorrenak, Endoia eta Azurki, helmugatik urrun daude, eta gertuen dagoenak, Azkara- tek, ez du berez bahe estuegia. Hala, etapa horrek estrategien jokorako abagune ezin aproposagoa eskaintzen du, eta buruz buru menderatu ezin den aur- kariari eraso taldean egin behar zaio- nez, Euskaltel-Euskadik eta Ibanesto.com taldeek oso egokiera ona izan dezakete euren helburuak era ho- rretan gauzatzeko, talde horiek biak

baitira garaipenerako hautagai bat bai- no gehiago izan ditzaketanak: Samuel Sanchez, Alberto Martinez eta David Etxebarria, Julian Gorosperen taldeak; eta Juan Miguel Mercado eta Aitor Osa, Eusebio Unzuenerak.

Aukera hori baliatzen ez badute, ne- kez hautsiko dituzte sona handiagoko ziklistak, bereziki, Danilo Di Luca, Francesco Casagrande eta Alexandre Vinokourov, nire ustez eta hurrenez hu- rren, itzulia irabazteko hautagai nagusi- ak.

Jakina da, baina, ez talde bata ez bes- tea ez dituela inoiz ausardiak nabar- mendu, lortu dutena beste bertute ba- tzuei esker erdietsi dutelako, eta galtze- ko beldurrak lotzen baditu, irabazi gabe geldituko dira. Bestalde, Endoiaiko mendateak ezustekoa eragiteko gaita- suna galdu du, azken asteotan inguru hartako baserrietako aziendak aztora- tuta ibili baitira izan den txirrin- dulari emanagatik. Pendizen piko ahoz aho zabaldu da tropelean, eta horrek eragin duen beldurrak oilo bustia bezain kilil utzi ditzake eskalatzailerik trebeenak ere. Beraz, segur aski, aurten ere erloju- pekoak erabakiko du garailea, azken urte biotan bezalaxe.

## TXIRRINDULARIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

## LAMPRE - DAIKIN

1. Rumsas, Raimundas
2. Tonkov, Pavel
3. Garate, Juan Manuel
4. Piccoli, Mariano
5. Codol, Massimo
6. Bertolotti, Simone
7. Barbero, Sergio
8. Cortinovis, Alessandro

## FASSA BORTOLO

11. Casagrande, Francesco
12. Belli, Wladimir
13. Basso, Ivan
14. Velo, Marco
15. Kirchen, Kim
16. Nocentini, Rinaldo
17. Pozzi, Oscar
18. Stangelj, Gorazd

## TELECOM

21. Vinokourov, Alexandre
22. Kloden, Andreas
23. Livingston, Kevin
24. Julich, Bobby
25. Guerini, Giuseppe
26. Aldag, Rolf

27. Bolts, Udo
28. Jakovlev, Sergei

## RABOBANK

31. Boogerd, Michael
32. Leipheimer, Levi
33. Zberg, Beat
34. Niermann, Grischa
35. Lotz, Marc
36. Verheyen, Geer
37. Engels, Addy
38. De Groot, Bram

## MAPEI-QUICK STEP

41. Garzelli, Stefano
42. Noe, Andrea
43. Paolini, Luca
44. Zanini, Stefano
45. Cañada, David
46. Evans, Cadel
47. Martínez, Miguel
48. Cioni, Darío David

## LOTTO-ADECCO

51. Verbrugghe, Rik
52. Aerts, Mario
53. Detilloux, Christophe

54. Bague, Serge
55. Mikhailov, Guennadi
56. Van de Wouwer, Kurt
57. Stremersch, Tom
58. Brandt, Christophe

## IBANESTO

61. Osa, Unai
62. Osa, Aitor
63. Baranowski, Dariusz
64. Brozyna, Tomasz
65. Arrieta, Jose Luis
66. Latasa, David
67. Vila, Patxi
68. Gil, Koldo

## COFIDIS

71. Cuesta, Iñigo
72. Vasseur, Cedric
73. Trentin, Guido
74. Kivilev, Andrei
75. Atienza, Daniel
76. Fernandez, Bixeen
77. Farazijn, Peter
78. Lopeboselli, Angelo

## ONCE-EROSKI

81. Beloki, Joseba
82. Gonzalez de Galdeano, Igor
83. Olano, Abraham
84. Zarrabeitia, Mikel
85. Serrano, Marcos
86. Jaksche, Jorg
87. Azevedo, Jose
88. Rodríguez, Joaquín

## ALESSIO

91. Gotti, Ivan
92. Dufaux, Laurent
93. Ivanov, Rouslam
94. Zanetti, Mauro
95. De Pauli, Daniele
96. Caucchioli, Pietro
97. Pellizzotti, Franco
98. Miholjevic, Vladimir

## KELME

101. Gonzalez, Aitor
102. Manzano, Jesus
103. Perez, Santiago
104. Otero, Gustavo
105. Leon, Francisco
106. De los Angeles, Juan Jose
107. Valverde, Alejandro

108. Garcia, Carlos

## CSC-TISCALI

111. Jalabert, Laurent
112. Hamilton, Tyler
113. Sorensen, Nicki
114. Sastre, Carlos
115. Rasmussen, Michael
116. Garcia, Marcelino
117. Cerezo, Francisco
118. Calvente, Manuel

## EUSKALTEL - EUSKADI

121. Etxebarria, David
122. Martinez, Alberto
123. Etxebarria, Unai
124. Zubeldia, Haimar
125. Flores, Igor
126. Lopez de Munain, Alberto
127. Isasi, Iñaki
128. Sanchez, Samuel

## SAECO

131. Simoni, Gilberto
132. Di Luca, Danilo
133. Astarloza, Igor
134. Galletti, Alessio

135. Mason, Oscar
136. Pugaci, Igor
137. Sabaliauskas, Marius
138. Spezialetti, Alessandro

## COAST

141. Zulle, Alex
142. Casero, Angel
143. Escartin, Fernando
144. Garmendia, Aitor
145. Beltran, Manuel
146. Perez, Luis
147. Plaza, David
148. Aebersold, Niki

## AG2R PREVOYANCE

151. Chaurreau, Iñigo
152. Astarloza, Mikel
153. Botcharov, Alexandre
154. Grux, Alexandre
155. Loder, Thierry
156. Oriol, Christophe
157. Portal, Nicolas
158. Turpin, Ludovic

## RELAX-FUENLABRADA

161. Colom, Antonio

162. Capitan, Jorge
163. Burgos, Nacor
164. Laguna, Oscar
165. Vazquez, José Manuel
166. Vazquez, David
167. Perez, Sergio
168. Rebollo, Jose Luis

## JAZZTEL-COSTA ALMERIA

171. Smetanine, Serguei
172. Casero, Rafael
173. Garrido, Jose Antonio
174. Diaz Lobato, Pedro
175. Valdes, Ricardo
176. Pecharroman, Jose A.
177. Toledo, Gustavo
178. Ferrio, Jorge

## GEROLSTEINER

181. Rebellin, Davide
182. Faresin, Gianni
183. Ordowski, Walker
184. Contrini, Daniele
185. Rastelli, Ellis
186. Steinhäuser, Tobias
187. Strauss, Marcel
188. Schimdt, Torsten

**Litana** **Kirol jantziak** ANDOAIN  
AMA KANDIDA etor., 6. - Tf.: 943 59 44 47

**ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN ADITUA**  
**SUPER SONIDO**  
URBIETA, 40 [www.supersonido.com](http://www.supersonido.com)

**ITSAS MENDI**  
**karabanak**  
Konzesionario Ofiziala  
**Autokarabanak:** HYMER, PILOTE RIMOR, BENIMAR, KNAUS.  
*Autokarabanak alokairuan*  
**Karabanak:** KNAUS, ERIBA, ROLLER.  
**Erremolkeak:** COMANCHE, JAMET.  
• Furgonetan eraldaketa  
• Autokarabanen alokairua  
• Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua  
☎ (943) 59 32 90 - ANDOAIN